

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

**Hazkundeak ez du enplegurik
sortzen**

Prekarietateak gora egiten du

**Langabeziaren
estaldura murrizten ari da**

**Aberastasunaren
banaketa bidegabea da**

Hego Euskal Herriko lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

	DATUA	ERREFERENTZI ALDIA	12 HIL. LEHENAGO
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA			
JARDUERA TASA (%)	75,0	2015 II Hiruhilabetea	75,4
JARDUERA TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	72,3	2015 I Hiruhilabetea	72,1
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	1.131.900	2015 II Hiruhilabetea	1.132.800
SOLDATAKO BIZTANLERIA	943.900	2015 II Hiruhilabetea	943.300
ALDI BATERAKO TASA (%)	24,4	2015 II Hiruhilabetea	21,3
ALDI BATERAKO TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	13,7	2015 I Hiruhilabetea	13,5
BIZTANLERIA LANGABETUA	202.800	2015 II Hiruhilabetea	217.000
LANGABEZI TASA (%)	15,2	2015 II Hiruhilabetea	16,1
LANGABEZI TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	9,6	2015 II Hiruhilabetea	10,3
GAZTEEN LANGABEZI TASA (%)	38,8	2015 II Hiruhilabetea	45,2
GAZTEEN LANGABEZI TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	20,7	2015 II Hiruhilabetea	22,2
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA (%)	15,0	2015 II Hiruhilabetea	15,6
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	9,7	2015 II Hiruhilabetea	10,4
SINATURIKO KONTRATUAK	80.454	2015eko Abuztua	72.962
KONTRATU MUGAGABEAK	3.892	2015eko Abuztua	3.429
ESKaintza eta eskaria			
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (%ALD.)	3,2	2015eko Uztaila	1,6
BPGd EAEn (%ALD.)	2,6	2015 II Hiruhilabetea	0,9
BPGd NAFARROAN (%ALD.)	2,8	2015 II Hiruhilabetea	1,6
BPGd ESPAINIAR ESTATUAN (%ALD.)	3,1	2015 II Hiruhilabetea	1,2
BPGd 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	1,6	2015 II Hiruhilabetea	1,3
PREZIOAK			
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	-0,4	2015eko Abuztua	-0,5
URTEARTEKO KPIa 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	0,2	2015eko Abuztua	0,4
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da. Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística 2015/09/12ean eguneraturiko informazioarekin			
129. zenbakia Egoeraren azterketa 2015ko iraila			



Aurkibidea

EGOERAREN AZTERKETA

1. Enpleguaren eta langabeziaren bilakaera	4
2. Prekarietatea	5
3. Langabezia erregistratua eta iraupen luzekoa	6
4. Langabeziaren estaldura	7
5. Enpleguaren bilakaera europar Batasunean	9
6. Prekarietatea EB-28n	10
7. Hego Euskal Herriko ekonomiaren urteko bilakaera	11
8. Ekonomiaren hiruhilabeteko bilakaera HEHn	11
9. Aberastasunaren banaketa HEHn	12

PUNTAKO GAIA

Gipuzkoako soldatak	14
---------------------------	----

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPGd	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEI	Nafarroako Estatistika Institutua
EIN	Estatistika Institutu Nazionala
BJA	Biztanle Jardueraren Azterketa

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Diskurtso ofiziala zabaltzen duten gobernu eta komunikabideen arabera, susperraldi ekonomikoan gaude, eta mezu hori indarrez ari dira aspertu arte errepikatzen. Txosten honetan azalduko dugun bezala, Hego Euskal Herrian hazkunde ekonomiko adierazgarria gertatzen ari dela hiruhileko batetik bestera (BPGaren hazkundearen bidez neurtua), baina azken urteotako joera beheranzkoa da. Nolanahi ere, bilakaera ekonomikoak ez du enplegurik sortzen. Langabeziaren jaitsiera, batez ere, biztanleria aktiboa murriztu delako eman da. Gainera, egungo enplegua era kezkagarrian ari da prekarizatzen, besteak beste aldi baterako enplegu eta desiragarria ez den denbora partzialeko enpleguaren eraginez.

** Txosten hau 2015ko irailaren 12an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

Manu Robles-Arangiz Institutua
www.mrafundazioa.org
Twitter: @mrafundazioa

1. Enpleguaren eta langabeziaren bilakaera

BAlk edo Biztanleria Aktiboaren Inkestak 2015eko bigarren hiruhilekoaz emandako datuen arabera, Hego Euskal Herrian 202.800 langabe zeuden (hau da, lanik ez dutenak baina era aktiboan bilatzen dutenak). Horietatik, 109.000 gizonak ziren (%54), eta 93.800 emakumeak. HEHn enplegu bila ari direnen %19 (38.400 lagun) Nafarroan ari ziren lan bila, eta gainerako %81 (164.400), Euskal Autonomia Erkidegoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, 16.300 pertsona gutxiago daude langabezian (erdia baino gutxiago emakumeak izanik, eta gainerakoak gizonak). Aurreko urtean 217.000 lagun zeuden langabezian; beraz, aurten 14.200 langabe gutxiago daude (horietatik hiru heren gizonak direlarik, eta gainontzekoak emakumeak).

Biztanleria langabeak behera egin badu ere, Hego Euskal Herrian enpleguak ez du gora egin azken hilabeteetan. Aitzitik, biztanleria landuna (1.131.900 pertsona) 900 lagunetan jaitsi da duela urtebetetik hona, baina bilakaera ezberdina izan da EAEn (6.200 enplegu suntsitu baitira, eta orain 864.600 da) eta Nafarroan (5.300 lanpostu sortu baitira, eta egun 267.300 da).

Langabezia ez bada jaitsi enplegua sortu izanak eraginda, zer gertatu da? Azalpena biztanleria aktiboaren bilakaeran datza, HEHn 15.200 lagunetan jaitsi baita urtebetean (soilik azken hiruhilekoan 13.000 pertsonetan jaitsi da); hau da, gero eta jende gutxiago ari delako lan bila jaitsi da langabezia. Horrela, pertsona aktiboak (lanean ari direnak edota enplegua era aktiboan bilatzen dutenak) 1.349.800 ziren orain dela urtebete, eta 2015eko bigarren hiruhilekoan, aldiz, 1.334.600.

Biztanleria aktiboa 25 urtetik gorakoen artean jaitsi da gehienbat, gazteen arteko joera goranzkoa baita: izan ere, biztanleria gazte aktiboa 3.000 lagunetan hazi da azken hiruhilekoan, eta 600 gehiagotan azken urtea kontuan hartzen badugu, 66.500 izateraino.

Gauzak horrela, HEHko langabezia tasa %15,2 da, duela urtebete %16,1 zelarik. Gaur egun, Nafarroan langabezia tasa %12,6 da, eta EAEn

%16 (urtebete lehenago %15,9 eta %16,1 ziren, hurrenez hurren). Nabarmentzekoa da, beraz, Nafarroako langabezia tasan izaniko jaitsiera, EAEko langabezia tasa 2014ko ekaineko ia berbera baita.

Gazte langabeei dagokienez, hau da, 25 urtetik beherako langabeei dagokienez, HEHn 25.800 gazte daude langabezian (5.300 Nafarroan, eta 20.500 EAEn); horien %38 emakumezkoak dira (9.800) eta %62 gizonezkoak (16.000).

Horrela, gazte langabeziaren tasa %38,8 da, eta urtebete lehenago, aldiz, % 45,15 izan zen (28.400 gazte baitzeuden langabezian). Azken urtean, gazte langabezia 2.600 lagunetan jaitsi da Hego Euskal Herrian, baina Nafarroan izaniko bilakaerak eragin du jaitsiera (3.500 gazte langabe gutxiago). Izan ere, EAEko joera kontrakoa izan da eta 900 lagunetan igo da langabezia 25 urtetik beherakoen artean. Zehazki, EAEko gizonezko gazteen artean langabeziak izaniko bilakaerak eragin du igoera hori, 1.300 gizon gaztetan igo baita 2014ko bigarren hiruhilekotik hona.

Soldatapeko enpleguaren bilakaera aztertzen badugu, ikusiko dugu HEHn 943.900 lagun ari direla besteentzat lanean; hau da, aurreko hiruhilekoan baino 500 gehiago baizik ez, eta urtebete lehenago baino 600 gehiago. Bestalde, soldatapean ari diren emakumeak 1.700 gehiago dira duela 12 hilabete baino, eta soldatapeko 1.100 gizon gutxiago. Horrela, 477.100 gizon eta 466.700 emakume besteen kontura ari dira lanean.

Soldatapekoen artean, gazte kopurua igo da gehien, 5.200 lagunetan igo baita azken urtean (baina azken hiruhilekoan 900 lagunetan baizik ez). Horietatik, 1.800 gizonak dira eta 3.300 emakumeak. Horrela, soldatapeko neska gazteak, guztira, 21.600 dira Hego Euskal Herrian, eta soldatapeko mutil gazteak, aldiz, 15.400 lurralde osoan (hau da, soldatapeko neska gazteak %40 gehiago dira soldatapeko mutil gazteak baino).


Jarduera sektoreen arabera, HEHko zerbitzuetan 672.800 lagun ari dira soldatapean lanean, hau da, soldatapeko enpleguaren %71 (duela urtebete baino 400 gutxiago, baina aurreko hiruhilekoan baino 200 gehiago). Industrian, berriz, 220.900 pertsona ari dira soldatapean; hots, %23 (duela



urtebete baino 800 gehiago, baina azken hiruhilekoan baino 1.900 gutxiago). Eraikuntzan, 41.000 lagun ari dira; hots, %4 (duela urtebete baino 1.900 langile gutxiago, baina aurreko hiruhilekoan baino 500 gehiago); eta azkenik, lehen sektorean 9.100 soldatapekok dihardute, hau da, soldatapekoen %1ek (1.700 gehiago urte batean, eta 1.400 gehiago hiruhileko batean).

Erkidegoei erreparatuta, eta bi sektore nagusiei dagokienez -zerbitzuak eta industria-, ikusten da Nafarroan industria soldatapekoen %26,75 dela eta zerbitzuetan, berriz, %67,3. EAEn, aldiz, %22,4 eta %72,45 ari dira, hurrenez hurren. Bilakaeraren arabera, industriaren eta zerbitzuen pisua kontrakoa da bi erkidegoetan duela urtebetetik hona: industrian soldatapekoak 1.200 gutxiago dira Nafarroan, baina 2.000 gehiago EAEn. Aldiz, zerbitzuetan soldatapekoak 3.100 gehiago dira Nafarroan, eta 3.500 gutxiago hegoaldeko beste hiru lurralde historikoetan.

Pertsona aktibo, okupatu eta langabeak. HEH (milaka pertsona)



Iturria: EPA

Aurreko grafiko honetan ageri dira zenbat pertsona aktibo (landunak gehi langabeak), landun eta langabe egon diren Hego Euskal Herrian, azken 14 urteetako ekainetan. Grafikoan ageri da biztanleria aktiboa behera joan dela 2010-2011 urteetatik (orduan 1,4 milioi aktibo zeuden), eta ageri da, halaber, zeinen jaitsiera handia gertatu den biztanleria landunean 2008tik hona (urte hartan 1,3 milioitik gora landun izan baitziren), eta langabezian dagoen biztanleriaren igoera, urte hartatik beretik hona (80.600 langabe baitzeuden). Orduz geroztik ez da aldatu biztanleria aktiboaren eta landunaren beherantzko joera, baina biztanleria langabearen joera 2013an

aldatu zen (urte hartan goia jo zuen: 227.800 langabe), eta beherantz doa gaur eguneraino.

Beraz, honatx 2015eko bigarren hiruhilekoan izaniko enpleguari buruzko ondorio nagusiak:

- Langabezia jaitsi egin da Hego Euskal Herrian, jende gutxiago ari delako lan bila.
- Duela urtebete baino jende gutxiago ari da lanean (landunak). EAEn, enplegua suntsitu da. Nafarroan, aldiz, sortu. Zertxobait igo da emakume eta gazte landunen kopurua.
- Soldatapeko enplegua deus gutxi hazi da, betiere Nafarroako, emakumeen eta gazteen soldatapeko enpleguaren bilakaerak eraginda; baina jaitsi egin da EAEn eta gizonetan.
- Zerbitzuek soldatapeko biztanleriaren ia hiru laurdenei ematen diete lana. Ondoren, industria da sektorerik garrantzitsuen.

2. Prekarietatea

Aldi baterako lana indarrez igo da, enplegu mugagabearen kaltetan. Izan ere, 2015eko ekainaren bukaeran 230.000 lagun ari dira aldi baterako kontratu batekin lanean Hego Euskal Herrian, hau da, urtebete lehenago baino 29.500 gehiago eta aurtengo martxoan baino 22.300 gehiago; aldiz, 713.900 lagunek kontratu mugagabea dute (langileen %75,6 dira). Kontratu mugagabea dutenak 742.800 ziren duela urtebete (%78,7); beraz, ia 30.000 enplegu mugagabe galdu dira azken hamabi hilabeteotan.

Horrenbestez, nabarmen igo da HEHko behin-behinekotasun tasa, %24,4ra bitarte (%22 zen duela hiru hilabete eta %21,3 duela urtebete). Behin-behinekotasuna lurralde guztietan eta bi sexuetan igo da. Nafarroan behin-behinekotasun tasa %26,9 da gaur egun; joan den martxoan, berriz, %22,6 zen eta urtebete lehenago %21,4. EAEn, behin-behinekotasuna %23,6 da; martxoan, aldiz, %21,8 zen eta 2014ko ekainean %21,2.

Sexuen arabera, behin-behinekotasunak emakumeak jotzen ditu gehien (tasa %27,1 baita), 126.700 baitira (hau da, aldi baterako kontratu guztien %55a), gizonak 103.300 direlarik (%21,65eko tasarekin). Dena den, datua

berdintzen ari da, gizonezkoen artean ari baita gehien igotzen behin-behinekotasuna; horrela, aldi baterako kontratua duten gizonak 19.700 gehiago dira 2014ko ekainean baino (garai hartan aldi baterako kontratuen proportzioa %17,5 zen gizonetan), eta emakumeen artean 9.700 gehiago dira behin-behinekotasunean (garai hartan %25,2ko tasa zuten).

Gainera, Hego Euskal Herriko 217.700 pertsona landunek ez dute lanaldi osoko enplegurik eta lanaldi partzialean ari dira; beraz, gaur egun partzialtasun tasa %19,2 da (urtebete lehenagoko ehunekoa baino 1,3 puntu gehiago, orduan %17,9 baitzen). Lurraldeka, Nafarroan 51.700 landun daude egoera horretan (enpleguaren %19,3; urtebete lehenago %17,7koa zen) eta EAEn 166.000 (tasa %19,2 da eta aurreko urtean, berriz, %17,9).

Emakumeen egoerari dagokionez, desberdintasuna are gehiago areagotzen da behin-behinekotasunarekin baino: HEHn 174.600 emakume ari baitira lanaldi partzialean. Gizonak, berriz, 43.000 dira; hau da, kontratu partzialak dituztenen %19,8 gizonak dira eta %80,2 emakumeak. Hala ere, gizonen artean igo da gehien enplegu partziala iaztik hona ehunekoetan: zehazki, %14,7 gehiago dira (orduan 37.500 ziren). Lanaldi partziala, berriz, %5,9 igo da emakumeen artean (duela urtebete 164.900 ziren). Nolanahi ere, begi-bistan dago zeinen igoera handia gertatu den prekarietatean, hala gizonengan nola emakumeengan, baina emakumeek pairatzen dute gehien oraindik ere.

Gauzak horrela, 2015eko bigarren hiruhilekoan haxe da nabarmentzekoa:

- Prekarietatea handitu da, aldi baterako kontratuak eta lanaldi partziala igo izanaren ondorioz.
- Jaitsi egin dira kontratu mugagabeak eta lanaldi osokoak.
- Emakumeek pairatzen dute gehien lan prekarietatea, kontratu partzialen %80 baitute eta behin-behinekoen %55.
- Prekarietatea gehiago hazten ari da gizonen artean emakumeen artean baino.


3. Langabezia erregistratua eta iraupen luzekoa

BAI inkesta da enplegua eta langabezia aztertzeko iturri nagusia, nazioarteko irizpideak erabiliz egiten baita eta alderaketa homogeneoak egiteko balio baitu. Dena dela, Enplegu Zerbitzu Publikoek ematen duen informazioak interesa du ere, langabezia erregistratuan oinarritzen baita; informazio hori hilean behin ematen dutelarik.

Enplegu Zerbitzu Publikoaren arabera (SEPE), 2015eko abuztuaren bukaeran 197.536 lagun daude langabezian Hego Euskal Herrian (90.244 gizon eta 107.292 emakume). Horietatik, 13.804 pertsona 25 urtetik behekoak ziren. Hau da, langabeen %7 gazteak dira. Uztailaz geroztik, 1.333tan igo dira langabezian izena emandakoak, eta 2014ko abuztutik hona 17.854ko jaitsiera izan da.

Iraupen luzeko langabeziari buruzko datuekin alderatuta (hau da, lan bila urtebetetik gora daramatenak), HEHn 127.300 pertsona daude egoera horretan, duela urtebete 134.500 ziren bitartean. Duela urtebeteko datua sekulan ekainean izaniko daturik txarrena izan zen. Hala ere, jaitsiera Nafarroan izaniko bilakaerari zor zaio, EAEko datuak ia egonkorrak baitira. Gainera, aurtengo HEHko datua 2013ko berbera da ia (urte hartan iraupen luzeko 127.300 langabe zeuden). Beraz, ia ez da hobekuntzarik izan.

Langabezia tasa eta epe luzeko langabezia HEH



Iturria: SEPE, EPA

Langabezia tasa eta iraupen luzeko tasa alderatuta (horretarako ekaineko datuak erabili behar dira), ikusten da langabe guztien artean



gero eta handiagoa dela urtebetetik gora lan bila daramatenen ehunekoa; gaur egun, HEHko langabeen %63,7 iraupen luzekoa da (orain dela urtebete %62,6 zen eta duela bi %56,6). Hori ikusteko beste modu bat eskaintzen digu horri buruz prestatu dugun grafikoak; izan ere, grafikoan ere ageri da iraupen luzeko langabeziak biztanleria aktiboaren %9,5 ukitu duela, eta langabezia tasa baino gutxiago eta era geldoagoan murrizten ari dela (langabezia tasari iraupen luzeko tasa kentzen badiogu, langabezian urtebete ez daramatenen tasa aterako zaigu).

Horrenbestez, 2015eko bigarren hiruhilekoaren bukaeran, honatx nabarmentzekoa:


- Erregistraturiko langabeziaren bilakaera antzekoa da BAI inkestaren arabera gertatu den bilakaerarekin. Hau da, erregistraturiko langabezia jaitsi da.
- Abuztuan, langabeziak berriz ere egin du gora uztailaren aldean, baina aurreko urtearekiko joera beheranzkoa da.
- 2014tik hona, iraupen luzeko langabezia 400 pertsonatan baizik ez da jaitsi EAEn. Nafarroan, aldiz, 6.800 lagunetan jaitsi da.
- Iraupen luzeko langabeziaren jaitsiera apalagoa eta geldoagoa da, eta 2013ko mailen gainetik gaude oraindik. Izan ere, azken urtebetean gora egin dute lan bila bi urtetik gora daramatenek (EAEn batez ere, 11.800 langabetan igo baita).

4. Langabeziaren estaldura

Ongizate-estatuak langabeei ematen dien estaldurari dagokionez, agerikoa da etengabe jaisten ari dela langabezian daudenen bizi-maila. Izan ere, 2015eko uztailan, HEHko langabeen %55,3k ez zuen inolako prestaziorik jasotzen; %26,1ek kotizaziopeko prestazioa zuen eta %18,6k sorospenez edota Laneratzeko Errenta Aktiboa jaso zuen. Hortaz, jada 109.244 lagunek ez dute inolako errentarik jasotzen. Langabeei laguntzeko estalduren maila apalak eragin nabarmena izan du biztanleria aktiboaren jaitsieran.

2014ko uztailan 109.175 pertsona langabe zeuden inolako babesik gabe (langabeen %50,7k ez zuen prestaziorik jasotzen) eta 2013an, berriz, 102.132 ziren (%45,6). Hori guztia beheko grafikoan ageri da; gainera, 2015eko uztailaren bukaeran, agerian gelditu da urtetik urtera era kezkagarrian jaisten ari dela bai kotizaziopeko prestazioak jasotzen dituztenen kopurua bai sorospena edo Gizarteratzeko Errenta Aktiboa jasotzen dutenen kopurua: horrela, 2013tik 2015era 24.995 lagunek utzi zioten kotizaziopeko prestazioa jasotzeari, eta 8.413 pertsona gutxiagok jasotzen dute sorospena edo Laneratzeko Errenta Aktiboa.

Langabeziagatiko estalduradun pertsonak. HEH. Uztaila



Iturria: SEPE

Kezkagarria da, halaber, langabeziaren estaldurara bideratzen den gastu publikoaren bilakaera. Izan ere, azken bi urteotan hileko 48 milioi eurotan jaitsi da, eta horren ondorioz 2015eko uztailan 88 milioi euro bideratu dira; 2013ko ekainean, aldiz, 136 milioi gastatu ziren; hau da, jaitsiera %35,5ekoa izan da (epealdi horretan langabezia %11,7 murriztu den artean). 2013tik 2014ra 24,6 milioi eurotan jaitsi zen (%18,1 gutxiago; eta langabezia, aldiz, %3,8 jaitsi zen bi data haien artean), eta 2014tik 2015era jaitsiera 23 milioi eurokoa izan da (hau da, %21,2 gutxiago; langabezia erregistratua, aldiz, %8,3 jaitsi da bi data haien artean).

Hau da, gero eta gutxiago gastatzen da langabezia prestazioetan, eta gastu horrek gero eta pertsona gutxiago babesten ditu; beraz,

hartzaile bakoitzak gero eta zenbateko txikiagoa jasotzen du. Hori guztia ondorengo bi taulatan ageri da. Lehenbizikoan ageri da guztira zenbat gastatzen den langabezia estalduran (hau da, kotizaziopeko prestazioak, langabezia sorospena eta Laneratzeko Errenta Aktiboa) lurraldez lurralde, eta azken hiru urteotan nolako bilakaera izan duen.

Gastua langabezia estalduran. HEH. Uztaila (miloi eurotan)

	2013	2014	2015	2013-15	2014-15
Nafarroa	33	26	21	-12	-5
EAE	103	85	67	-36	-18
H.E.H.	136	111	88	-48	-23

Iturria: SEPE

Zehazki, bigarren taulan ageri den bezalaxe, jaitsi egin da langabe bakoitzeko batez beste egin den gastua; izan ere, 2013ko uztailan 606,48 euro gastatu ziren eta aurtan, aldiz, 443,41 euro. Hau da, %26,9 jaitsi eman da (bestela esanik, jaitsiera 163 euro-tik gorakoa izan da pertsona bakoitzeko). 2014tik 2015era, murrizketa ia 72,6 euro-koa izan da pertsona bakoitzeko (hau da, %14,1 gutxiago), oso antzekoa 2013an eta 2014 artean izanikoarekin, jaitsiera 90,5 euro-koa izan baitzen pertsona bakoitzeko (hau da, jaitsiera %14,9 izan zen orduan).

Langabezia erregistratuaren bilakaera alderatzen badugu prestazio eta sorospenetrako gastuak guztira izan duen jaitsierarekin, langabezia %8,3 jaitsi da azken urtean eta gastua %21,2; 2013aren aldean, langabezia %11,7 jaitsi da eta gastua %35,5.

Bilakaera: langabezia estalduraren gastua, langabezia erregistratua eta guztizko gastuaren nahiz langabeen arteko ratioa. HEH.

Uztaila

	Langabezia erregistratua	Gastu osoa prestatu eta sorospentian (euro)	Gastua, batez beste, langabe bakoitzeko (euro)
2013ko uztaila	223.832	135.750.000	606,48
2014ko uztaila	215.390	111.134.000	515,97
2015eko uztaila	197.536	87.589.000	443,41

Iturria: SEPE

Izan ere, eta kontuan hartuta IPREM indizea (efektu anizkoitzen errentaren indize publikoa) 426 euro dela hilean pertsonako, langabe bakoitzeko egiten den gastua eta lege ezarrita dagoen gutxieneko errenta ia berdin-berdinak dira. Hori are larriagoa da batez besteko gastuan kotizaziopeko prestazioak sarturik daudelako, eta prestazio horiek aipatu gutxieneko zenbatekoaren gain-gainetik egon daitezkelako.

Horrek guztiak honakoa jartzen du agerian:

- Langabeentzat bideraturiko gastu publikoa langabezia erregistratuan izaniko jaitsiera baino askoz ere gehiago murriztu da.
- Era kezkagarrian jaisten ari da langabe bakoitzeko batez besteko gastua.
- Gero eta langabe gutxiagok jasotzen dute prestazio motaren bat, kontuan harturik kotizaziopekoa, sorospena edo Laneratzeko Errenta Aktiboa.
- 2014ko uztailan jada langabeen erdiak baino gehiagok ez zuten inolako prestaziorik edo sorospenik jasotzen, eta hori 2015ean larriagotu da langabeen %55ek baino gehiagok ez baitu inolako estaldurarik.



5. Enpleguaren bilakaera europar Batasunean


2015eko bigarren hiruhilekoan, 28 estatuetakoa EBko langabezia tasa %9,6 izan da, Hego Euskal Herriko %15,2aren aldean. Horrela, gure langabezia maila 5,6 puntu gorago dago europar Batasunaren batez besteko maila baino (Nafarroan 3 puntu gehiago eta EAEn 6,2 puntu gorago). 28ko EBko datu txarrenetan bosgarrena da gurea (Greziako datuak 2015eko lehen hiruhilekoari dagozkio, ondotik ez baita horri buruzko bestelako daturik argitaratu).

Zehazki, honatx langabeziari buruzko daturik txarrenak: Grezia (%25,9), Estatu espainiarra (%22,6), Zipre (%16,1), EAE (%16), Kroazia (%15,8), H.E.H. (%15,2), Nafarroa (%12,6) eta Portugal (%12,4); langabezia tasa, beraz, %12tik gora dago estatu guzti hauetan. Langabeziari buruzko daturik onenak, denak %7tik beherakoak, honakoak dira: Alemania (%4,7), Txekiar Errepublika (%5,1), Malta (%5,6), Luxenburgo (%5,7), Danimarka (%6,1) eta Holanda (%6,9).

Bilakaeraren arabera, 28ko EBko hiruhileko langabezia tasa hobera ari da 2013tik hona; orduan, langabezia tasa %11 zenean. Izan ere, herrialde gehienek antzeko bilakaera dute.

Gazte langabeziari buruzko azken datua %20,7 da europar Batasunean, HEHn dugun %38,8aren parean; Estatu espainiarrean %49,4 da, Estatuan frantsesean %23,7 eta Alemanian %7,1. Hala ere, bilakaerarik onena gure herrialdean gertatu da, azken urtebetean % 6baino gehiago jaitsi baita; hurrengoak Portugal (5,4 puntu murriztu da), Zipre (5,3 puntu gutxitu da) eta Bulgaria (4,7 puntu gutxiago); konparazioan, europako tasa 1,5 puntu murriztu da, Estatu espainiarrekoa 3,8 puntu, Estatu frantsesekoa 0,2 eta Alemaniakoa 0,7. Era berean, nabarmendu behar da eskura ditugun datuen arabera, Finlandian bakarrik egin duela langabeziak okerrera gazteen artean, gazte langabeen tasa %3,1 igo baita azken urtean.

EB-28. Langabezia tasa. 2015 II hiruhilekoa (izartxoak duten estatuak, I hiruhilekoa)



Iturria: eurostat, INE

Honatx atal honetako ondorioak:

- Europar Batasuneko buru izaten segitzen dugu langabeziari dagokionez, batez bestekoaren oso gaitetik; soilik Kroazia, Zipre, Estatu espainiarra eta Grezia daude gu baino okerrago.
- Kezkagarria da Hego Euskal Herriko gazte langabeziaren maila, europako batez besteko tasaren ia bikoitza baita.


6. Prekarietatea EB-28n

Prekarietatea kontuan hartuta, eta argitaratu den azken datuaren arabera (2015eko lehen hiruhilekoa), nabarmendu behar da 28ko europar Batasuneko behin-behinekotasun tasa %13,7 dela (urtebete lehenago %13,4 zen) eta hainbat herrialdetako behin-behinekotasuna biztanleria landunaren bostena baino handiagoa da: Polonia (%28), Estatu espainiarra (%23,6), Hego Euskal Herria (%22), Portugal (%21,3) eta Holanda (%21). Herrialde horietatik dute egoerarik okerrera lan kontratuen iraupenari dagokionez. Gainera, deigarria da herrialde horietan guztietan gora egin duela behin-behinekotasunak 2014tik hona, eta are gehiago, baita 2013tik aurrera ere. Aitzitik, behin-behinekotasunik apalena duten estatuak honakoak dira: Errumania (%1,5), Lituania (%1,5), Estonia (%2,3), Letonia (%2,9) eta Bulgaria (%3,6), guztiak ere Ekialdeko Blokekoak izandakoak, eta guztietan ere tasa biztanleria landunaren %4tik behera dago.

2015eko bigarren hiruhilekoaz argitaratu diren datu gutxi horiek etsigarriak dira benetan: lau herrialderi buruzko informazioa dugu eskura, eta lauretan ere behin-behinekotasunak okerrera egin du. Izan ere, Estatu espainiarrean (%25,1), Hego Euskal Herrian (%24,4), Portugalen (%22,2) eta Holandan (%22) jaitsi egin da kontratu mugagabeen proportzioa.

Eta ohikoa izaten ari denez, behin-behinekotasunak are gehiago jotzen ditu emakumeak gizonak baino: europar Batasuna bere osoan hartuta, 2015eko lehen hiruhilekoan emakume landunen %14,1ek ez zuen kontratu mugagaberik; gizonezkoen artean, aldiz, %13,3k. Hego Euskal Herrian egoera are okerragoa da, emakumeen %24,9k aldi baterako kontratuak baitzituzten eta gizonen %19,2k.


Tenporalitate tasa. I Hiruhilekoa. 2015



Iturria: eurostat, EPA

Halaber, lanaldi partzialari dagokionez, emakumeek prekarietate handiagoa dute gizonak baino, baina aldea askoz ere handiagoa da: 2015eko lehen hiruhilekoan 28ko europar Batasunean, biztanleria landunaren %19,8k ez du lanaldi osoko kontraturik. Gizonekoen artean datu hori %8,9 da eta emakumezkoen artean % 32,5. EHko egoera eta 28 herrialdeetako ia berdina da.

Partzialitate tasa. I Hiruhilekoa. 2015



Iturria: eurostat, INE

Horrenbestez, hauex esan daiteke:

- 28ko EBko behin-behinekotasun mailarik handienetan bigarrena dugu, hau da, batez bestekoa baino 8 puntutik gorago, eta goranzko joera kezagarriaz.
- Enplegu partzialean europako batez bestekoaren tasa antzekoa dugu.
- Prekarietateak gehienbat emakumeak kaltetzen ditu eta EHkoak egoera okerragoan daude europarrak baino, lanaldi partzialari dagokionean batez ere.



7. Hego Euskal Herriko ekonomiaren urteko bilakaera

Gure herrialdeko egoera sozioekonomikoak okerrera egin du azken urteotan. Adibidez, Hego Euskal Herriko Barne Produktu Gordina - BPG 82.700 milioi euro ingurutan dago urtero geldirik 2009tik hona, eta urteko hazkunde tasak ez dira %1era iritsi urterik hoberenetan (hots, 2010ean eta 2014an), gainerako urteetan behera egin duelarik (okerrena 2009a izan zen, BPGa ia % 4 jaitsi baitzen).


Beraz, HEHko ekonomiaren BPGa 2008ko 86.437 euroren azpitik dago argi eta garbi. Azken zortzi urteetan, datu txarrena 2013koa izan da, eta 2014koa txarrenetan hirugarrena (2012koa, berriz, okerrerenetan bigarrena). Kontuan hartu behar da azken hiru urteotako BPGaren datuak makalena izan direla 2007az geroztik.

2000tik 2008ra ekonomian hedapen handia izan zen, BPG nominala 51.869 milioi eurotik 86.437 milioietaraino igo zenean. Bada, horren aldean, egungo egoera kritikoa dela esan daiteke: 2008tik hona, ekonomia ia %5 uzkurdu baita.

Paragrafo honen aurreko grafikoan ageri da zernolako bilakaera izan duen BPGak Hego Euskal Herrian. BPGa ezkerreko eskalari erreferentzia egiten dioten barren bitartez dago adierazita. Grafikoko marrek (eskuineko eskalari dagozkionak) herritar bakoitzaren batez besteko errentari egiten diote erreferentzia: per capita BPGa. Esan behar da bilakaera antzekoa izan dela lurraldeka.

Herritar bakoitzeko errentari dagokionez, Hego Euskal Herriko biztanle bakoitzari batez beste dagokion ekonomiaren zatia 29.330 euro izan da 2014an: 28.124 euro Nafarroan eta 29.683 euro EAEn. Horrek esan nahi du 2008an baino %5,4 gutxiago HEH guztirako (%6,65 gutxiago Nafarroan eta %5 gutxiago EAEn). Azken urteotako joera ere beheranzkoa da arlo honetan. Izan ere, hiru geografia-eremuetan, biztanle bakoitzeko BPGaren datuak txarrenak izan dira 2007tik hona.

BPG Hego Euskal Herrian



Iturria: INE

Gainera, nabarmendu behar da Nafarroako per capita errentaren bilakaera txarragoa izan dela EAEn baino: 2000n %3,8 hobe zen; 2005ean berdindu ziren, eta orduz geroztik, okerragoa da. Gaur egun (2014), %5,25 apalagoa da.

8. Ekonomiaren hiruhilabeteko bilakaera HEHn

Hala ere, Hego Euskal Herriko ekonomiaren epe laburreko bilakaerari begira, ikus dezakegu hiruhilabeteko BPGa hazi egin dela aurreko urteotako data berberen aldean. Izan ere, hiruhilabeteko BPGaren hazkunde hori onuragarria eta garrantzitsua izateaz gain, areagotzen ari da; hau da, hiruhilabeteko bakoitzean, BPGa aurrekoan baino gehiago hazten ari da.

Zehazki, EAEko BPGa %2,6 hazi da 2015eko bigarren hiruhilabetekoan, iazko epealdi berarekin alderatuta. Nafarroako ekonomia, berriz, %2,8 hazi da. Estatu espainiarrari eta 29ko europar Batasunari dagokionez, BPGaren hazkundea %3,1 eta %1,6 izan da, hurrenez hurren. Guzti hau honako taulan dago adierazita:

BPG, hiruhileko bilakaera (%)

	2014, 3H	2014, 4H	2015, 1H	2015, 2H
EAE	1,4	1,9	2,2	2,6
Nafarroa	1,8	2,1	2,3	2,8
E. espainiarra	1,6	2	2,7	3,1
28-EB	1,3	1,4	1,5	1,6

Iturria: eurostat, Eustat, IEN eta INE

Horregatik, bilakaerari begira HEHko ekonomia nola edo hala suspertzen ari da epe laburrari dagokionez. Baina zalantza garrantzitsuak sortzen dira datorren hilabeteetan gertatu daiteneenari buruz, are gehiago europar Batasunaren baitan iragartzen dabiltzan geldotze ekonomikoa kontuan hartzean.

9. Aberastasunaren banaketa HEHn

Aberastasunaren banaketa, neurtzeko erabiltzen diren koefizienteen bidez ikuskatua (hauek errenten banaketa hamar zatitan sailkatzen dute, eta adierazten dute biztanleriaren zer zati dagoen hamar zati horietako bakoitzean), oso kezagarria da eta gure ekonomian gertatzen denaren adierazgarri argia da. Ondorengo taula honetan daturik garrantzitsuenak erakutsiko ditugu, bai eta zer-nolako bilakaera izan duten 2009 eta 2014 artean:

HEH aberastasunaren banaketa (aberatsenen %)

Nafarroa

	Errentaren %40	Errentaren %60	Biztanleko BPGa
2009	%22,2	%43,5	28.892 euro
2014	%19,2	%36	28.124 euro

EAE

	Errentaren %40	Errentaren %60	Biztanleko BPGa
2009	%21,6	%41,9	29.828 euro
2014	%17,8	%34,2	29.683 euro

Iturria : INE

Taulan jasota dagoen bezala, biztanle bakoitzeko BPGa murriztu egin da 2009tik 2014ra (Nafarroan hein handiagoan); deigarriena da aberastasunaren banaketa bidegabeagoa egin dela epealdi horretan. Izan ere, 2009an Nafarroako biztanleriaren %22,2 aberatsenak eta EAEko biztanleriaren %21,6 aberatsenak errenten %40 jasotzen zuten; aldiz, 2014an %19,2k eta %17,8k hurrenez hurren jaso dituzte. Gauza bera gertatzen da errenten %60arekin: 2009an Nafarroako herritar aberatsenen %43,5ek jasotzen zituzten eta EAEko herritar aberatsenen %41,5. Aldiz, 2014an biztanleriaren %36k eta %34,2k jaso dituzte, hurrenez hurren.

Hurrengo taulan azaldu dugu zenbat gehiago irabazten duten aberatsenak (errenten %40 eta %60 pilatzen dituzten herritarrek) gainerako herritarren aldean, HEHko lurralde bakoitzean:



**Zenbat aldiz gehiago irabazten dute
aberatsenak (aberastasunaren %40 eta %60
pilatzen dutenak)
gainerako herritarren aldean (%)**

	Nafarroa		EAE	
	40% renta	60% renta	40% renta	60% renta
2009	2,3	1,9	2,4	2,1
2014	2,8	2,7	3,1	2,9

Iturria: INE

Taulan argi ikusten da zer-nola bilakatu den aberastasunaren banaketa Hego Euskal Herrian: hau da, 2009an aberastasunaren %40a pilatzen zuen biztanleria aberatsenak 2,3 aldiz gehiago irabazten zuen Nafarroako gainerako herritarrek baino, eta 2,4 aldiz gehiago EAEn. Eta amildegi hori are handiagoa egin da urteen joan-etorrian, eta 2014an errenten %40a irabazten dituzten aberatsenak 2,8 aldiz gehiago irabazi dute Nafarroan eta 3,1 aldiz gehiago EAEn gainerako herritarrek baino. Horrek esan nahi du desberdintasunak %37 igo direla Nafarroan eta %39 EAEn 5 urtetan.

Errenta guztien %60a eskuratzen duen biztanleria aberatsenari dagokionez, 2009az geroztik desberdintasunak %20 areagotu dira Nafarroan eta %27 EAEn. Beraz, esan daiteke izugarri handitu dela 2009tik hona gehien irabazten dutenen eta gainerakoen arteko aldea, eta gero eta jende gutxiagok kontrolatzen duela aberastasun gehiena.

INEk bildutako datue eta adierazle hainbat kritikoak dira ere, Bizi Baldintzen Inkestaren kasu besteak beste. Horien artean etxe bakoitzeko batez besteko errenta dago: Nafarroan %12,2 jaitsi da eta 2014an 33.047 euro izan zen. EAEn, berriz, %9,2 jaitsi da eta 2014an 34.240 euro izan zen. Inkesta horretan, halaber, sarturik daude lanean intentsitate apala duten etxeetan bizi diren pertsonen buruzko estatistikak (estatistika honek kontuan hartzen du 60 urtetik beherako zenbat lagun bizi diren etxe jakin batzuetan, zeintzuetan lan egiteko adinean dauden etxeen kideek lan egin dezaketenaren %20 baino gutxiago lan egin zuten). Nafarroan 2009an biztanleriaren %3,8 zegoen egoera horretan, eta 2014an %7,5. EAEn bilakaera okerragoa izan da: 2009an biztanleriaren %5,5 baitzegoen egoera horretan eta iaz %12,2.

Puntako gaia: Gipuzkoako soldatak

Aurten, lehen aldiz, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014ko soldaten, pentsioen, langabeziagatiko prestazioen eta borondatezko gizarte aurrikuspeneko erreskaten txostena argitaratu du. Barneratzen duen informazioa guztiz beharrezkoa da ekonomiaren eta gizartearen egoera eta joera aztertzeko Lurralde Historikoan, etorkizunean finkatu eta gainontzeko Hegoaldeko Lurralde Historikoek adibide bezala hartu beharko dutelarik. Hala ta guztiz ere, esan beharra dago txostenean ez direla adierazi errenten eboluzioan eragin duten faktoreak, hala nola: lan partzialen hazkundera, sektorekako enpleguaren joera, preziotan emandako aldaketak etab., guzti hau funtsezkoa izanik sakoneko azterketa burutzeko.

Argitaratu diren datuen artean aipagarria da soldatapeko langileek izan duten eros-ahalmen galera: 2008tik soldatak %1,35ena igo baitira, prezioak %9,6 hazi diren bitartean; hori dela eta, batez besteko soldatak hazi egin dira Gipuzkoan azken lau urteetan, baina soldata horiekin gero eta gauza gutxiago erosi daitezke.

Aldaketa nabarmenenak izan dituzten pertsona taldeak ikuskatuz gero, denek izan dute eros-ahalmen galera; baina galera handiena diru-sarrerara murriztena zutenek jasan dute (errenta baxuenak zituzten %10ak bere batez besteko soldata %26,8 gutxitua izan dute 2008tik gaur arte) eta, aldiz, eros-ahalmen gutxien galdu dutenak soldata handienak dituztenak izan dira (errenta altuenak dituztenei batez besteko soldata %3,2 handitu zaie, eta soldata altuenak dizuten biztanleriaren hurrengo %10ari batez bestekoa %4 igo zaio).

Baita nabarmendu beharra dago diru-sarrerak lortzeko eran dagoen ezberdintasuna ere: soldatapekoek 26.634 euro lortzen dituzte urtean, pentsiodunek 16.883 euro eta langabeek 5.356 euro batezbestean.

Gizonezkoek, oraindik ere, emakumeek baino gehiagoko diru-sarrerak dituzte (2014an %33,8 handiagoak); eta ezberdintasun hauek murrizten badoaz ere eskuragarri dauden lehen datuekin alderatu ezkerro (2003an ezberdintasuna %42,6koa baitzen) ez da %32aren azpitik murriztea lortu (2010ean lortu zen minimo hura). Eta are nabariagoa da estatuan jaiotakoen eta

atzerrian jaiotakoen arteko aldea: lehenengoek 24.887 euro-ko diru-sarrerak dituzte ta bigarrenek 12.897 euro.

Atal honetan aipaturiko datuak ondorengo taulan daude isladaturik; bertan hartzekodun mota, hartzekodun mota bakoitzeko pertsona kopurua eta bakoitzaren batez besteko 2014ko diru-sarrerak zehazturik. Aipatzekoa da argitaraturiko txosteneko pertsonen seirena era batean baino gehiagotan egon zela (lanean, langabezian edota pentsiodun bezala), eta horregatik datu gehiago daudela konparaketak egiteko nahiz eta analisi honetan barneratuak ez izan.

Gipuzkoako batez bestekoak 2014an

Hartzekoduna	Pertsona kopurua	Batezbesteko diru-sarrera (euro)
Soldatapekoa	241.456	26.634
Pentsioduna	154.091	16.883
Langabea	17.739	5.356
Soldatapeko gizona	153.948	27.894
Soldatapeko emakumea	131.354	20.846
Estatuko soldatapekoa	280.398	24.887
Atzerriko soldatapekoa	15.117	12.897
Soldatapeko gaztea (<25)	16.604	6.910
Soldatapekoa (25 - 65)	266.365	25.872
Soldatapeko nagusia (>65)	3.861	17.921

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia